



Lorailla

LORAILLA, loraila, Maria'ren illa... Loraila, urtiaren aldirik alaiena ta gozoena... Jaungoiko altsuak Bere Ama eztsuarentzat egiña... Beraz, Loreilla aldirik ederrena, maigarriena, zorionsuena...

Goizian goiz, eguzki argiak, zeru urdiñetik bere urrezko izpiakaz lastan gozoak bialduaz, mendi-baratzetako lora-larrosak eztkiro zaballzen diardu... Bitartian, iñontz garoa, zidar txipriztin politak bailitzan, bedar guri ta lora gaineran atsedean gozoa artzen... Gabian, "ainguru-soñuan" izar guztiak dantzan eta kiñuka... ta, ipar-aize urduri ta ozkirria, gazte urduri ta onari goi-ametsak edatuten...

Loraila, loraila... zu zaran ederra!... Zu zaran zoragarria!... Zure altzoan lorak lirain, larrosak eder, txoriak abeslari, umeak urduri, gaztiak ameslari eta zarrak "kontu kontari" egoki ta pozez...

Lora bakoitza, neskaitilen esku-bigunetatik, Andra Maria'ren oñetara joan gurarik; "Larrosa Miragarriari" euren edertasuna apalkiro opalduten pozez...

Aldara apainduan, zeruko Erregiñaren irudia ikusgarri... Bere begi gozoak gorantz begira, geuri zeru-bidea erakusten; biotz gaixuak poztuteko egin-alak egiten...

Lora lirañak, larrosa ederrak, argi biztuak, abestiak, otoiak eta abar... Guztiak Beretzat... Gure Amarentzat...

"Guzti-guztiak alkar arturik
geure biotzak loraz beterik

opa deutzuguz Maria
zeruko izar argia".

Abestitxu xamur au, geure erriko eleizan (Mañariko eleizan) lora-txorta ederrak iminita, amaikatxu bidar abestu izan dogu... Beste au bere sarrilan ezpañeratuten genduh, biotz ganieian eskuak genduzala:

"Loreak utsak dira
ezpadau biotzik,
gureak or yuatzuz
lorakaz bildurik..."

Lorak, izan ere, eurenz utsak dira, biotzeko maitasunaz indartzen ez tiranian; laster igartzen dira.

Lora bakoitza, biotz bakoitza... bestela gure egiñenak gorantz eztira egatuko... Lorak igartuko dira, argiak itzaliko dira ta abestiak ixilduko dira... Egintza guztiak gorantz egin barik lurrian geratuko dira bai... Andra Mariak, biotz legorak eztauz atsegin...; onoimen bikañez orniduta dagozan biotz txukunak, osterara, begi-begiko yakoz. Esku gozo-biguñez lantzantzen dauz... Biotz barruan gordetzen dauz, ta zorionez betetzen dauz...

Goazen ba, geu bere, geure Amagana... Loraillean eta beti goazen bai biotz betiakaz... Garbitasuna, apaltasuna opalduaz, gogo beroz esan dagiogun:

"Zeruko Ama, izar argia
zeugana gatoz poz-pozik;
geure biotzak artu egizuz,
zaindu gagizuz zerutik".

Loraila, loraila, zure altzuan dagozan edertasunak zeñek zenbatu?... Jaungoikoak edereder egin zaitu. Bere Amarentzat egin zaitu...

Mañari'ko ERROSE